

KONPOSAKETA

Planoen sailkapena kontuan hartuz, badakigu zein izen jasotzen duen plano bakoitzak agertzen den subjektu eta espazioaren arteko harremanaren arabera. Plano bat egiterakoan, guk nahi dugun irudia lortzeko elementuak ordenatu egin beharko ditugu, bakoitzak posizio bat bete beharko du enkuadreaken barruan. Prozesu horri konposaketa deitzen zaio. Bere definizioaren arabera, konposaketa interes gune bat azpimarratzeko elementuak enkuadreaken barruan ordenatzearen arteari dagokio.

Definizioa erreparatuz, esan ohi da enkuadre bakoitzean nahiz eta elementu desberdinak egon, interes gune bakarra behar duela, nolabait esatearren, elementu bat besteak baino garrantzitsuagoa izango dela eta hori ardi gera dadin ordenatzen direla beste guztiak. Beraz definizioaren arabera edozein enkuadretan elementu batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak dira.

Hori horrela izanik, nik beste elementu batengan insistitu nahi dut. Elementu guztiek garrantzia berbera ez izateak ez du esan nahi garrantzirik gabeko elementuak daudenik. Hau da, enkuadreaken barruan agertzen diren elementu guzti-guztiak dira garrantzitsuak, nahiz eta bakoitzak okupatzen duen espazio eta moduarengatik garrantzia desberdina eduki, garrantzirik gabeko elementu batek ez dauka tokirik enkuadreaken barruan. Ideia honi jarraituz, enkuadrea, mihise zuri bat da. Bertan agertuko den guztia guk geuk margotu dugulako egongo da. Horixe izango da hain zuzen konposaketaren premisa. Enkuadreak dagoen guztiak garrantzia du eta funtzio bat beteko du.

IKUS-ENTZUNEZKO KONPOSAKETAREN BEREZITASUNAK

Ikus-entzunezko plano bat planifikatzerakoan, hain zuzen berau osatuko duten elementuak ordenatzerakoan, kontuan hartu behar ditugu hainbat gauza.

Lehenengoa, normalean ikus-entzunezko produktu bat plano batek baino gehiagok osatzen dute eta beraz plano bakoitza planifikatzerakoan aurreko eta ondorengo planoak kontuan hartu beharko dira.

Ideia honi lotuta, **bigarrena**, ez dira soilik kontuan hartu behar enkuadreaken barruan agertzen diren elementuak, baita nahiz eta erakutsi ez, kanpoan ikusi gabe presente daudenak. Eremuz kanpokoa deitzen dena alegia.”Lo ausente como discurso: elipsis y fuera de campo en el texto cinematográfico” dokotore tesian Gómez Tarínek esaten duen moduan:

“el fuera de

campo cuya procedencia y vigencia es exclusiva del hecho fílmico. Tampoco encontramos su eco en la pintura, pese a la existencia de una delimitación física (enmarcado); el cuadro pictórico se cierra sobre sí mismo, es centrípeto, mientras que el fílmico es centrífugo, su imagen llama (se abre) hacia algo que está más allá de él (DURAND, 1993: 94).

El límite de la pantalla (el borde) se constituye en un elemento claramente fetichista puesto que, al separar lo visible de lo no-visible, parece pretender la detención de la mirada, pero en realidad

provoca que la pulsión escópica espectral lo desborde, lo que, en cierto modo, es una forma de perversión (METZ, 1975a: 54).

La relación entre campo y fuera de campo es biunívoca, no puede existir el uno sin el otro”


(F.J. Gómez Tarín, 2002: 400)

Hirugarrena, elementuek enkuadorean hartuko duten ordena, erabat aldatuko da eta ondorioz garrantzia harremanak baita, kamerak beraiekiko hartuko duen posizioarengatik

KONPOSAKETARI BURUZKO KONTSIDERAZIO OROKOR BATZUK

Posizioari dagokionez:

1.-Objektuek enkuadorean osatzen duten posizioari buruz, erdia, enkuadrearen erdia, ez da puntu edo tokirik interesgarriena. Berez hau berpizkunde garaitik datorkigu, punturik interesgarriena, enkuadrea, hain zuzen ere gure marko lauki luzea bederatzi laukitan zatitzeko erabiltzen diren lerroak biltzen diren puntuak dira gutxi gora behera, ez baita zehatza, punturik fuerteenak.



Lerroak gurutzatzen diren lau puntu horiek lirateke interesgarrienak. Herenen erregela deitzen dena. Oso erabilia izan bada ere, ezin zaitezketen guztiz lotuta sentitu “erregela” izena duen erregela ez den honengatik.

Hona hemen adibide bat. Slumdog Millionaire. Danny Boyle. Pelikula telebistako lehiaketa bati buruzko zine produktu bat da. Beraz lengoaia biak nahasten ditu eta elementuen posizioari dagokionez bat datoz.

<http://www.youtube.com/watch?v=Ak70AEHw1as&feature=Playlist&p=BF3590718A4A49A5&index=0&playnext=1>

Edozein ikus-entzunezko produkturi ikusiko duzue, oso gutxi izango direla erdian kokatutako elementu garrantzitsuenak hala ere, badira adibideak eta egoerak.

1.- interlokutorea ikuslea denean, esaterako albistegi baten aurkezlearen planoak:

<http://video.google.es/videoplay?docid=-1513629755581248179&ei=vBNoS5OuPJSs2ALjmf4CA&q=gaur+egun&hl=es&client=firefox-a#>

Aurkezleak ikusleari hitz egiten dio.

2.- Protagonista galduta dagoenaren sentsazioa eman nahi denean noraezean dabilenean.

The shining. Kubrick.

<http://www.youtube.com/watch?v=c0ETuZqiu8g>

Ikusitako adibideetan nabarmen gelditzen denez, posizioa ez da arreta zentroa edo interes gunea ezartzeko erreminta bakarra badira beste batzuk.

Desberdina den edozerk azpimarratuko du interes gune bat:

- 1.- Mugimendurik ez dagoen testuinguru batean mugitzen den edozerk.
- 2.- Denak eserita dauden testuinguru batean zutik dagoen edozerk.
- 3.- Kolore desberdina duen edozerk.

Schindler´s list. Spielberg. Kolorearen erabilera

<http://www.youtube.com/watch?v=pqsPm1xWY2k&playnext=1&list=PL040B406CC056E500>

Notting Hill. Roger Michell. Enfoke inguruaren erabilera.

<http://www.youtube.com/watch?v=YMU588XuNQM&feature=PlayList&p=BB2A174A83688BBF&index=0&playnext=1>

3. ariketa

Zuri gehien gustatzen zaizkizun sei margolan aukeratu eta ondoko elementuak aztertu:

- 1.- nola daude elementuak enkuadreakin barruan ordenatuta.
- 2.- zein da elementu nagusia eta zein teknika erabiliz lortzen du elementu hori nabarmentzea.
- 3.- Konposaketak nola ezartzen ditu irakurketarako lerroak. Nondik nora doa margolanaren behaketa?